# Xedapen Orokorrak

## INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA

**6514**

AGINDUA, 2010eko abenduaren 3koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuarena, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek 2011. urtean ezar ditzaketen tarifak arautzen dituena.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuan (martxoaren 16ko 48/2004 Dekretuak aldatua) arautu ziren ibilgailuen azterketa teknikoaren zerbitzuaren emakidadunei izendatu ahal zaizkien eginkizunak, hau da, ibilgailu automobilen segurtasunaren arloko azterketak, izapideak eta kudeaketa.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan xedatzen denez, dekretu hori garatzeko xedapenetan aurreikusitakoak izango dira azterketa teknikoaren zerbitzuengatik ezarriko diren tarifak. Dekretu horren azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoa ere kontuan hartu beharko da.

Apirilaren 4ko 60/2000 Dekretua indarrean sartu ostean, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2000ko uztailaren 19ko Aginduak arau-testu berean batu zituen Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren arloan indarrean zeuden tarifa guztiak (2000-09-14ko EHAA).

Bestalde, tarifak Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko abenduaren 2ko Aginduaren bidez eguneratu ziren azken aldiz. Izan ere, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek alor horretan 2010ean ezar zitzaketen tarifak arautu ziren agindu horren bidez.

Ondorioz, apirilaren 4ko 60/2000 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoari jarraiki,

XEDATU DUT:

***1. artikulua.***– Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek, aldizka egin beharreko azterketak egiten dituztenean, ezar ditzaketen tarifak agindu honetako I. eranskinean jasotakoak dira. Eta ziklomotorrek azterketa teknikoak pasatu behar dituztenez gero, I. eranskineko 1. kategoriari doakion tarifa aplikatuko zaie.

***2. artikulua.***– Agindu honen II. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek, erreforma garrantzitsuak arautu zirenetik egin beharreko azterketa teknikoak egiten dituztenean, ezar ditzaketen tarifak.

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA, INNOVACIÓN, COMERCIO Y TURISMO

**6514**

ORDEN de 3 de diciembre de 2010, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regulan las tarifas aplicables en el ámbito de la Inspección Técnica de Vehículos por los Concesionarios del Servicio para el año 2011.

El Decreto 60/2000, de 4 de abril, modificado por el Decreto 48/2004, de 16 de marzo, determina las funciones de inspección, tramitación y gestión, dentro del ámbito de la seguridad de los vehículos automóviles, que podrán ser asignadas a las entidades concesionarias del servicio de inspección técnica de vehículos.

El artículo 7 del citado Decreto 60/2000, de 4 de abril, determina que las tarifas derivadas del servicio de inspección técnica de vehículos, se fijarán mediante las disposiciones de desarrollo del mismo, en relación con lo establecido en la Disposición Final Primera del mismo Decreto,

Mediante Orden de 19 de julio de 2000, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, con motivo de la entrada en vigor del Decreto 60/2000, de 4 de abril, se unificaron en un único texto normativo, las tarifas vigentes en el ámbito de la Inspección Técnica de Vehículos (BOPV 14-09-2000).

Por otra parte, la última actualización de las tarifas se hizo mediante Orden de 2 de diciembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regulan las tarifas aplicables en el ámbito de la Inspección Técnica de Vehículos por los concesionarios del servicio para el año 2009.

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en el artículo 7, del Decreto 60/2000, de 4 de abril,

DISPONGO:

***Artículo 1.***– Las tarifas aplicables por las Entidades Concesionarias del Servicio de Inspección Técnica de Vehículos, por la realización de inspecciones de carácter periódico, son las establecidas en el anexo I de esta Orden. Dada la obligatoriedad de someter los ciclomotores a las inspecciones técnicas, se aplicará a estos vehículos la tarifa correspondiente a la 1.ª categoría del anexo I.

***Artículo 2.***– Las tarifas aplicables por las Entidades Concesionarias del Servicio de Inspección Técnica de Vehículos, por la realización de Inspecciones Técnicas derivadas de la regularización Reformas de Importancia, son las establecidas en el anexo II de esta Orden.

Erreforma garrantzitsuak hiru motatan sailkatu dira, ezarri beharreko tarifa hobeto zehaztu ahal izateko. Hona hemen sailkapena:

1. mota:

1.1.– Motorra aldatzea, eta haren ordez beste marka bateko edota beste mota bateko motorra jartzea.

1.2.– Ezgaituek erabili ahal izateko egin beharreko egokitzapenak, baldin eta gidatzeko managailuetan edota segurtasunean eragina izan dezaketen bestelako elementuetan aldaketarik egiten bada.

1.3.– Suspentsio-sistema aldatzea, M1 kategoriako ibilgailuetakoa izan ezik.

1.4.– Ardatz gehigarriak muntatzea edo ardatz bikoitzen (tandem) ordez ardatz hirukoitzak (tridem) ipintzea, edo alderantziz.

1.5.– Bastidorea edo egitura autosostengatzailea erreformatzea, baldin eta tamaina edo ezaugarri mekanikoak aldatzen badira, edo karrozeria guztia aldatzea, eta haren ordez beste ezaugarri batzuk dituen karrozeria ipintzea.

1.6.– Edozein kamioi aldatu eta brozel-kamioi, kamioi zisterna, kamioi isotermo edo kamioi hozkailu, kamioi garabi, kamioi traktore, hormigoi-kamioi, edukiontzi edo ibilgailuak eramateko kamioi bihurtzea.

1.7.– Ibilgailua auto-eskolako ibilgailu bihurtzea, motozikletak izan ezik.

1.8.– Ibilgailua ibilgailu blindatu bihurtzea, baita jatorrizko izaerara itzultzea ere.

1.9.– Karrozeriaren erresistentziari edo karrozerien barruko egokitzapenari eragin diezaioketen aldaketak: anbulantzia, hileta-ibilgailua, autokarabana edo, karrozeria autosostengatzailea bada, sabai jasoa ipintzea.

1.10.– Ardatza aldatzea eta beste ezaugarri batzuk dituena jartzea.

1.11.– Aplikazio jakin baterako prestatua dagoen N eta O kategoriatako ibilgailua aldatzea, eta haren egitura edo karrozeria aldatzeko eskatzen duen aplikazio baterako prestatzea.

1.12.– Ibilgailuaren kategoria aldatzea eragiten duten erreformak, betiere, 70/156/EB, 74/150/EB eta 92/61/EB zuzentarauetan edo 2140/1985 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.

1.13.– Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.

2. mota:

2.1.– Motorra aldatzea, baldin eta motorraren ezaugarri mekaniko edo termodinamikoak aldatzen badira, baita jatorrizko egoerara itzultzea ere.

2.2.– Motorra tokiz aldatzea.

2.3.– Erregaiaren konbustio-sistema aldatzea, baldin eta aukera ematen badu ibilgailuak erabili ohi

A los únicos efectos de determinación de la tarifa aplicable, las Reformas de Importancia se clasifican en tres tipos:

Tipo 1:

1.1.– Sustitución del motor por otro de distinta marca y/o tipo.

1.2.– Adaptación para la utilización por personas discapacitadas con modificación de mandos y/o elementos que afecten a la seguridad.

1.3.– Modificación del sistema de suspensión, excepto vehículos de categoría M1.

1.4.– Montaje de ejes supletorios o sustitución de ejes «tandem» por «tridem», o viceversa.

1.5.– Reforma del bastidor o de la estructura autoportante, cuando origine modificación en sus dimensiones o en sus características mecánicas, o sustitución total de la carrocería por otra de características diferentes.

1.6.– Transformación de un camión cualquiera a camión volquete, camión cisterna, camión isotermo o frigorífico, camión grúa, tractocamión, camión hormigonera, portacontenedores o portavehículos.

1.7.– Transformación a vehículo auto-escuela, excepto motocicletas.

1.8.– Transformación a vehículo blindado, incluso restitución a las condiciones originales.

1.9.– Transformaciones que afecten a la resistencia de las carrocerías o a su acondicionamiento interior, tales como a ambulancia, funerario, autocaravana o techo elevado en el caso de carrocería autoportante.

1.10.– Sustitución de un eje por otro de distintas características.

1.11.– Transformación de un vehículo de las categorías N y O, que estuviera preparado para una aplicación determinada, en otra aplicación que requiera modificaciones en su estructura o carrozado.

1.12.– Reformas que impliquen cambio de categoría del vehículo, según se definen en las Directivas 70/156/CEE, 74/150/CEE y 92/61/CEE o en el Real Decreto 2140/1985.

1.13.– Resto de reformas no relacionadas, asimilables a las anteriores.

Tipo 2:

2.1.– Modificación del motor que produzca una variación de sus características mecánicas o termodinámicas, incluso restitución a las condiciones originales.

2.2.– Cambio de emplazamiento del motor.

2.3.– Modificación del sistema de alimentación de carburante que permita sustituir el que normalmente

duen sistemaren ordez beste ezaugarri batzuk dituen konbustio-sistema erabiltzeko, edo baldin eta bata zein bestea erabiltzeko aukera ematen badu, baita jatorrizko izaerara itzultzea ere.

2.4.– Direkzio-sistema aldatzea.

2.5.– Bereizgailuak edo gurpilak muntatzea, baldin eta ez badituzte jatorrizko bereizgailuen eta gurpilen ezaugarri berak.

2.6.– Ardatzen arteko tartea edo hegada aldatzea.

2.7.– Onargarria den Gehienezko Masa Teknikoa aldatzea eta gutxitzea edo jatorrizko egoerara itzultzea ibilgailuan aldaketak eginez.

2.8.– Eserleku kopurua aldatzea, baldin eta kopuru hori ez badago jasota ibilgailu-motaren homologazioan eta, hala dagokionean, zutik joateko plaza kopurua aldatzea eta eserleku tolesgarriak gehitzea.

2.9.– Pertsonak garraiatzeko ibilgailua gauzak garraiatzeko ibilgailu bihurtzea edo alderantziz.

2.10.– Edozein kamioi aldatu eta kutxa ireki bihurtzea.

2.11.– Auto-eskolako aginteak desmuntatzea, motozikletatakoak izan ezik.

2.12.– Kamioi baten kabinaren kanpoaldeko tamaina, altuera edo tokia aldatzea, baita hasierako egoerara itzultzea ere.

2.13.– Sabaia jasotzea, baldin eta karrozeria autobastidore baten gainean muntatuta badago.

2.14.– Atoian eramateko tresnak ipintzea (kakoa, bola, bosgarren gurpila).

2.15.– Jasogailu hidraulikoak edo elektrikoak ipintzea, salgaiak kargatzeko.

2.16.– M1 kategoriako ibilgailuetako sabaia aldatzea.

2.17.– Erregai-ontzi osagarriak ipintzea, edo aldatzea.

2.18.– Arrapalak, jasogailuak edo bestelako sistema homologatuak edo UNE 26494 araua betetzen dutenak ipintzea, pertsonak errazago sartu eta atera daitezen.

2.19.– Ibilgailu motaren homologazioan sartuta ez dagoen trakzio-mekanismoa ipintzea.

2.20.– Ibilgailuaren eserlekuak kentzea mugikortasun urriko pertsonen gurpil-aulkiak oratzeko tresnak eta guneak ipintzeko, eta alderantziz.

2.21.– Gehienez ere 9 eserleku dituen ibilgailuan –gidariarena barne– eserlekuak aldatzea, eta nekazaritzako ibilgailuetan ibilgailu motaren homologazioan sartuta ez dauden beste batzuk ipintzea.

se emplea en el vehículo por otro de diferentes características, o utilizar uno u otro, indistintamente, incluso restitución a las condiciones originales.

2.4.– Modificación del sistema de dirección.

2.5.– Montaje de separadores o ruedas de especificaciones distintas a las originales.

2.6.– Modificación de distancia entre ejes o de voladizo.

2.7.– Aumento de la masa técnica máxima admisible (MTMA) y disminución o restitución a las condiciones originales con modificaciones en el vehículo.

2.8.– Variación del número de asientos no incluida en la homologación de tipo y, en su caso, del número de plazas de a pie, incluyendo la adición de trasportines.

2.9.– Transformación de un vehículo para el transporte de personas en vehículo para el transporte de cosas o viceversa.

2.10.– Transformación de un camión cualquiera a caja abierta.

2.11.– Desmontaje de mandos de autoescuela, excepto motocicletas.

2.12.– Modificación de las dimensiones exteriores de la cabina de un camión o su elevación, o de su emplazamiento, incluso la restitución a las condiciones originales.

2.13.– Elevación del techo cuando la carrocería esta montada sobre un autobastidor.

2.14.– Incorporación de dispositivos para remolcar (gancho, bola, quinta rueda).

2.15.– Incorporación de elevadores hidráulicos o eléctricos para carga de mercancías.

2.16.– Modificación de techo en vehículos de categoría M1.

2.17.– Instalación o cambio de depósitos auxiliares de combustible.

2.18.– Incorporación de rampas, elevadores u otros sistemas, homologados o con cumplimiento de la Norma UNE 26494, para facilitar el acceso o salida de personas.

2.19.– Instalación de mecanismo de tracción no incluido en la homologación de tipo del vehículo.

2.20.– Sustitución de asientos del vehículo por espacio y medios de sujeción de sillas de ruedas para personas con movilidad reducida, y viceversa.

2.21.– Sustitución de asientos de un vehículo con 9 plazas como máximo, incluido el conductor, y en vehículos agrícolas por otros no incluidos en la homologación de tipo.

2.22.– Nekazaritzako traktoreetan ibilgailu motaren homologazioan sartuta ez dagoen gidariarentzako babes-egitura ipintzea.

2.23.– Nekazaritzako edo basogintzako traktoreetan, lanerako tresna edo makina laguntzaileak behin betiko instalatzea.

2.24.– Nekazaritzako edo basogintzako traktoreetan, atoian daramaten ibilgailurako balazta-agintea instalatu edo desmuntatzea.

2.25.– Motorra aldatzea, eta haren ordez beste aldaera bati dagokiona ipintzea, baita jatorrizko egoerara itzultzea ere.

2.26.– Ibilgailu motaren homologazioan sartuta dauden pneumatikoak kentzea eta haien ordez baliokide ez diren batzuk ipintzea.

2.27.– Taximetrodun taxien altak eta bajak.

2.28.– Bidearen zabalera aldatzea.

2.29.– Alboko edo atzeko estriboak, aurreko edo atzeko babeskiak edo ordezko gurpila atzeko atean jartzeko euskarriak ipintzea.

2.30.– Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.

3. mota:

3.1.– Balaztatze-sistema aldatzea.

3.2.– Motelgailua edo motor-balazta ipintzea, baita jatorrizko egoerara itzultzea ere.

3.3.– Eskuz erabiltzeko martxa-kutxaren ordez martxa-kutxa erdiautomatikoa edo automatikoa ipintzea edo alderantziz, edo martxa kopuru desberdineko kutxa ipintzea.

3.4.– Lineako azterketarik behar ez duten gidatzeko aginteak instalatzea eta desmuntatzea, pertsona ezgaituek erabili ahal izateko.

3.5.– Bereizgailuak desmuntatzea edo jatorrizko gurpilak jartzea.

3.6.– Ibilgailua hegadaren jatorrizko egoerara itzultzea.

3.7.– Onargarria den Gehienezko Masa Teknikoa gutxitzea edo jatorrizko egoerara itzultzea, ibilgailuan aldaketarik egin gabe.

3.8.– Eserleku tolesgarriak kentzea.

3.9.– Pertsonak edo gauzak garraiatzeko ibilgailua jatorrizko egoerara itzultzea.

3.10.– Motozikleta auto-eskola erabilerarako eraldatzea eta alderantziz.

3.11.– Atoian eramateko tresnak kentzea (kakoa, bola, bosgarren gurpila).

3.12.– Salgaiak kargatzeko jasogailu hidraulikoak edo elektrikoak desmuntatzea.

2.22.– Instalación, en los tractores agrícolas, de una estructura de protección del conductor no incluida en la homologación de tipo.

2.23.– Instalación de forma permanente, en los tractores agrícolas o forestales, de dispositivos o máquinas auxiliares para el trabajo.

2.24.– Instalación o desmontaje, en tractores agrícolas o forestales, de mando de frenado para el vehículo remolcado.

2.25.– Sustitución del motor por otro que corresponde a una variante diferente, incluso la restitución a las condiciones originales.

2.26.– Sustitución de neumáticos, incluidos en la homologación de tipo del vehículo, por otros no equivalentes.

2.27.– Altas y bajas de taxi con taxímetro.

2.28.– Variación del ancho de vía.

2.29.– Instalación de estribos laterales o traseros, defensas delanteras o traseras o de soporte de rueda de repuesto en puerta trasera.

2.30.– Resto de reformas no relacionadas, asimilables a las anteriores.

Tipo 3:

3.1.– Cambio en el sistema de frenado.

3.2.– Incorporación de un ralentizador o de un freno motor, incluso restitución a las condiciones originales.

3.3.– Sustitución de caja de velocidades de mando manual por otra automática o semiautomática o viceversa, o por caja de distinto número de relaciones (marchas).

3.4.– Instalación de mandos para la utilización por personas discapacitadas que no precisen inspección por línea y desmontaje de los citados mandos.

3.5.– Desmontaje de separadores o restitución a las ruedas originales.

3.6.– Restitución del vehículo a las condiciones originales del voladizo.

3.7.– Disminución de la MTMA o retorno a las condiciones originales, sin modificación del vehículo.

3.8.– Eliminación de trasportines.

3.9.– Transformación de un vehículo para el transporte de personas o cosas a sus condiciones originales.

3.10.– Transformación de motocicleta a autoescuela y viceversa.

3.11.– Desmontaje de dispositivo de remolcar (gancho, bola, quinta rueda).

3.12.– Desmontaje de elevadores hidráulicos o eléctricos para carga de mercancías.

3.13.– M2 eta M3 kategoriatan sabaia aldatzea eta M1 kategorian jatorrizko egoerara itzultzea.

3.14.– Errepideko argiaren proiektoreak ipintzea edota kentzea.

3.15.– Jatorrizko bolantearen ordez bolante txikiago bat ipintzea, baldin eta bolante bien kanpoaldeko diametroen arteko tartea jatorrizko bolantearen diametroaren ehuneko 10etik ehuneko 15era artekoa bada; baita jatorrizko egoerara itzultzea ere.

3.16.– Erregai-ontzi osagarriak desmuntatzea.

3.17.– Norberaren erabilerako M1 eta N1 kategoriatako ibilgailuetan bidaiariak erraz sartu eta irteteko jasogailuak eta bestelako sistemak instalatzea eta horiek desmuntatzea edozein motatako ibilgailuetan.

3.18.– Arrapalak, jasogailuak edo bestelako sistemak ipintzea eta kentzea, zamalanak errazago egiteko.

3.19.– Ibilgailu motaren homologazioan sartuta dagoen trakzio-mekanismoa ipintzea eta edozein trakzio-mekanismo desmuntatzea.

3.20.– Mugikortasun urriko pertsonen gurpil-aulkiei eusteko tresnak eta eserlekuak jatorrizko egoerara itzultzea.

3.21.– Ibilgailu motaren homologazioan jasota ez dauden eserlekuak jatorrizko egoerara itzultzea.

3.22.– Nekazaritzako edo basogintzako traktoreetan, lanerako tresna edo makina laguntzaileak behin betiko desmuntatzea.

3.23.– Gidaririk gabe alokatzeko ibilgailuak edo autoturismoak klasifikatzea eta desklasifikatzea, baita salgaien zerbitzu publikoaren baja eta sailkapenetako bestelako aldaketak ere.

3.24.– Bederatzi plaza dituzten –gidaria barne– ibilgailuen eta adin txikikoen eta eskolako garraioaren altak eta edozein motatako ibilgailuen bajak.

3.25.– Alboko edo atzeko estriboak, aurreko edo atzeko babeskiak eta ordezko gurpilaren euskarria desmuntatzea.

3.26.– Argi dirdiratsu edo birakariak ipintzea edo kentzea.

3.27.– BGM (Baimendutako Gehienezko Masa) gutxitzea.

3.28.– Aipatu gabeko gainerako erreformak, aurrekoetan sar daitezkeenak.

Edozelan ere, multzo funtzional moldagarriren bat ipintzen bazaio ibilgailuari, hau da, «kit» bat ipintzen bazaio, eta hori ipintzeak aipatu erreformaren bat egin beharra badakar, erreforma horri dagokion tarifa bera aplikatuko zaio dena delako «kit» hori erregularizatzeko.

3.13.– Modificaciones del techo en categorías M2 y M3 y restitución a las condiciones originales en categoría M1.

3.14.– Adición o desmontaje de proyectores de luz de carretera.

3.15.– Sustitución del volante original por otro de menores dimensiones, cuando la diferencia entre los diámetros exteriores de ambos sea mayor del 10 por 100 y hasta el 15 por 100 del diámetro del primero, y restitución a las condiciones originales.

3.16.– Desmontaje de depósitos auxiliares de combustible.

3.17.– Instalación de elevadores u otros sistemas para facilitar el acceso o salida de personas en vehículos de categoría M1 y N1 de uso particular y desmontaje de los mismos en cualquier tipo de vehículo.

3.18.– Incorporación y desmontaje de rampas, elevadores u otros sistemas para facilitar la carga y descarga.

3.19.– Instalación de mecanismo de tracción incluido en la homologación de tipo del vehículo y desmontaje de cualquier mecanismo de tracción.

3.20.– Restitución a las condiciones originales de asientos y medios de sujeción de sillas de ruedas para personas con movilidad reducida.

3.21.– Restitución a las condiciones originales de asientos no incluidos en la homologación de tipo del vehículo.

3.22.– Desmontaje de forma permanente, en los tractores agrícolas o forestales, de dispositivos o máquinas auxiliares para el trabajo.

3.23.– Clasificación y desclasificación de autoturismo o alquiler sin conductor, así como baja de servicio publico de mercancías y otros cambios de clasificaciones.

3.24.– Alta de transporte escolar y de menores de vehículos de hasta nueve plazas, incluido el conductor, y baja de cualquier tipo de vehículo.

3.25.– Desmontaje de estribos laterales o traseros, defensas delanteras o traseras y soporte de rueda de repuesto.

3.26.– Instalación o desmontaje de luces destellantes o rotativas.

3.27.– Reducción de la MMA.

3.28.– Resto de reformas no relacionadas, asimilables a las anteriores.

En todos los casos, la tarifa para la regularización de incorporación de conjuntos funcionales adaptables, denominados «kits», que implique una de las reformas mencionadas, será la que corresponda a dicha reforma.

***3. artikulua.***– Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek 1. motako erreforma garrantzitsuengatik (proiektu eta ibilgailupisatzerik gabe) aplikatzen diren tarifak –2. artikulua– aplikatuko dituzte honako kasuetan: Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartel bikoitza ematen denean, baita matrikula aldatzen, ibilgailua historiko gisa katalogatzen, istripu bereziki larriak dituzten ibilgailuen ohiz kanpoko azterketa egiten eta bajan zegoen ibilgailua gaitzen denean ere.

***4. artikulua.***– III. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek aplikatu beharko dituzten tarifak, honako hauek egiten dituztenean: batetik, Europako Batasunetik, Europako Ekonomiagunetik edo beste herrialde batzuetatik datozen ibilgailuak –matrikulatuak edo ez– matrikulatu aurreko izapideak eta azterketak egiterakoan; eta bestetik, kabinako txasis edo autobastidoreen gainean karrozeria jarri zaien ibilgailuei dagozkienak egiterakoan.

***5. artikulua.***– III. eranskinean daude jasota Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren entitate emakidadunek aplikatu beharko dituzten tarifak, honako hauek egiten dituztenean: salgai arriskutsu eta galkorrak garraiatzeko ziurtagirien luzapenak egiteko azterketak, ibilgailuak pisatzekoak, bigarren faseko jatorrizko azterketak, aldiro-aldirokoak, taximetroak konpondu edo taximetroetan aldaketak egin osteko azterketak, adin txikikoen eta eskola garraioaren azterketa berezia, eta salaketa edo borondatezko eskabidea dela-eta egindako azterketa partziala.

***6. artikulua.***– Agindu honetako 1., 2., 3., 4. eta 5. artikuluetan ezarritako tarifek bigarren azterketa ere barne hartzen dute, bigarren faseko jatorrizko azterketak, aldizkakoak eta taximetroak aldatu edo taximetroetan aldaketak egin osteko azterketak salbu. Lehenengo azterketan aurkitutako akatsak konpondutakoan egiten da bigarrena. Lehenengo azterketa egiten denetik hilabeteko epean egin beharko da bigarrena.

Tarifek ez dute bigarren azterketa barne hartzen denuntziagatiko azterketa kasuetan edo borondatez eskatzean.

***7. artikulua.***– Ibilgailuaren titularrak azterketa ITV-IAT aztertokitik kanpo egiteko eskatzen duenean, eta hori posible denean, entitate emakidadunak joan-etorri gastuengatik 0,60 euro/km-ko kobratu ahalko du, eta gutxienez, 11,80 euro fakturatuko ditu egiten duen irteerako. Fakturak azterketa egitera joateko erabilitako ibilgailuaren eta mugitu diren ikuskatzaileen gastuak jasoko ditu, eta emakida-gune bakoitzaren barruan hurbilen dagoen ITV-IAT aztertokitik aztertu beharreko ibilgailua dagoen tokiraino fakturatuko da. Azterketa estazio mugikorren barruko ikuskaritza programazioaren barrukoa denean, ez da joan-etorria fakturatuko.

***Artículo 3.***– Las tarifas aplicables por las Entidades Concesionarias del Servicio de Inspección Técnica de Vehículos, por la realización de Inspecciones Técnicas derivadas de expediciones de Tarjeta ITV por duplicado, por cambio de matrícula, por catalogación como vehículo histórico, por inspección extraordinaria de vehículos gravemente accidentados y por rehabilitación de un vehículo dado de baja, son las mismas que las establecidas en el artículo 2.º para las Reformas de Importancia del Tipo 1, sin proyecto y sin pesaje de vehículo.

***Artículo 4.***– Las tarifas aplicables por las Entidades Concesionarias del Servicio de Inspección Técnica de Vehículos por la tramitación e inspección previa a la matriculación de vehículos, matriculados y no matriculados, procedentes de la Unión Europea, el Espacio Económico Europeo y terceros países, así como a los vehículos carrozados sobre chasis cabina o autobastidores, son las establecidas en el anexo III de esta Orden.

***Artículo 5.***– Las tarifas aplicables por las Entidades Concesionarias del Servicio de Inspección Técnica de Vehículos, por pesada de vehículos, verificaciones primitivas segunda fase, periódicas y después de reparación o modificación de aparatos taxímetros, realización de Inspecciones para prórroga de certificados de transporte de Mercancías Peligrosas y Perecederas, inspección específica de transporte escolar y de menores y las inspecciones parciales por denuncia o a petición voluntaria, son las establecidas en el anexo III de esta Orden.

***Artículo 6.***– Las tarifas señaladas en los artículos 1, 2, 3, 4 y 5 de esta Orden, excepto las verificaciones primitivas segunda fase, periódicas y después de reparación o modificación de aparatos taxímetros, incluyen la segunda inspección que corresponda efectuar al haberse detectado en la primera anomalías a corregir, siempre que se lleve a cabo dentro del plazo de un mes desde la realización de la primera inspección.

Las tarifas no incluyen la segunda inspección en los casos de inspección por denuncia o a petición voluntaria.

***Artículo 7.***– Cuando por el titular de un vehículo sea solicitada su inspección fuera de las instalaciones de la Estación ITV-IAT y esto sea posible, la entidad concesionaria podrá facturar los gastos de desplazamiento a razón de 0,60 euros por kilómetro recorrido, con una facturación mínima de 11,80 euros por salida efectuada. En dicha facturación estarán incluidos los gastos del vehículo y del personal inspector desplazados, y será realizada tomando como origen la Estación ITV-IAT más próxima, dentro de cada zona de concesión, al lugar de emplazamiento del vehículo a inspeccionar. El desplazamiento no será facturado cuando la inspección se encuadre dentro de la programación de inspecciones de las estaciones móviles.

***8. artikulua.***– Agindu honetako tarifen eguneratzea urtero egingo da urriaren urtetik urterako KPI aldaketa aplikatuz. Eguneratutako tarifak hurrengo urteko urtarrilaren batetik aurrera aplikatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2011ko urtarrilaren 1etik aurrera indargabetu egiten da Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren Zerbitzuaren emakidadunek alor horretan 2010ean ezar ditzaketen tarifak arautzen dituen Industria, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2009ko abenduaren 2ko Agindua.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Industria Administrazioan eskumena duen zuzendariari ahalmena ematen zaio agindu hau eta aplikatu beharreko araudia interpretatzerakoan sortzen diren zalantzak erabakitzeko, baita agindu hau garatzeko beharrezko diren xedapenak emateko ere.

***Bigarrena***.– Agindu hau Euskal herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta biharamunean jarriko da indarrean. Legezko ondorioak, dena den, 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko abenduaren 3a.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza
eta Turismoko sailburua,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

***Artículo 8.***– La actualización de las presentes tarifas se efectuará anualmente por aplicación de la variación del IPC en base al último índice interanual de octubre. Las tarifas actualizadas se aplicarán a partir del 1 de enero del año siguiente.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Con fecha 1 de enero de 2011 queda derogada la Orden de 2 de diciembre de 2009, del Consejero de Industria, Innovación, Comercio y Turismo, por la que se regulan las tarifas aplicables en el ámbito de la Inspección Técnica de Vehículos por los concesionarios del servicio para el año 2010.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Se faculta al Director o Directora competente en materia de Administración Industrial para la resolución de cuantas cuestiones pudieran plantearse en la interpretación de la presente Orden y demás normativa de aplicación, así como para dictar las disposiciones de desarrollo que fueran necesarias.

***Segunda***.– La presente Orden entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, produciendo, en todo caso, efectos jurídicos desde el 1 de enero de 2011.

En Vitoria-Gasteiz, a 3 de diciembre de 2010.

El Consejero de Industria, Innovación,
Comercio y Turismo,
BERNABÉ UNDA BARTUREN.

I. ERANSKINA

ALDIZKAKO AZTERKETENGATIKO TARIFAK

| Ibilgailu mota | Tarifa (BEZa barne) |
|---|---|
| 1. kategoriako ibilgailuak<br>(Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak) | 21,20 euro |
| 2. kategoriako ibilgailuak<br>(Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak) | 39,20 euro |
| 3. kategoriako ibilgailuak<br>(3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak) | 57,90 euro |
| Atoiak eta erdiatoiak | 33,55 euro |
| Traktoreak eta nekazaritzako makinak | 33,55 euro |

Azterketen tarifetarako, koadrizikloak ibilgailu arintzat hartuko dira.

*ANEXO I*

*TARIFAS POR INSPECCIONES PERIÓDICAS*

| *Tipo de vehículo* | *Tarifa (incluido IVA)* |
|---|---|
| *Vehículos de 1.ª categoría*<br>*(Motocicletas, ciclomotores y vehículos de motor hasta tres ruedas)* | *21,20 euros* |
| *Vehículos de 2.ª categoría*<br>*(Turismos, cuadriciclos y vehículos de mercancías de M.M.A. hasta 3.500 kg)* | *39,20 euros* |
| *Vehículos de 3.ª categoría*<br>*(Vehículos de mercancías de M.M.A. mayor de 3.500 kg y de transporte de personas de más de nueve plazas)* | *57,90 euros* |
| *Remolques y semi-remolques* | *33,55 euros* |
| *Tractores y maquinaria agrícola* | *33,55 euros* |

*A efectos de tarifa de inspección, los cuadriciclos tendrán la misma consideración que los vehículos ligeros.*

II. ERANSKINA

ERREFORMEN TARIFAK

Erreforma garrantzitsuen azterketa teknikoetan aplikatu behar diren tarifak jasotzen dira eranskin honetan. Tarifa horiei, gainera, beste tarifa bat aplikatuko zaie erreformaren izapideak egiteagatik.

Erreforma egitean ibilgailuaren masa edo ardatzen banaketa aldatzen bada, azterketa teknikoagatiko tarifaz aparte, pisatze-tarifa ere ezarriko da.

Erreforma bat egiteko proiektua aurkeztu behar denean, proiektua ikuskatzeagatiko tarifa ere ezarriko da.

Erreformak taximetroaren egiaztapen metrologikoa dakarrenean, egiaztapenari dagokion tarifa ere ezarriko da.

| Ibilgailu mota | Tarifa (BEZa barne) | | |
|---|---|---|---|
| | 1. mota | 2. mota | 3. mota |
| 1. kategoriako ibilgailuak (Motozikletak, ziklomotorrak eta motordun ibilgailuak, gehienez hiru gurpilekoak) | 21,20 euro | 10,60 euro | 5,30 euro |
| 2. kategoriako ibilgailuak (Automobilak, koadrizikloak eta 3.500 kg-ra arteko BGMa duten salgaien ibilgailuak) | 39,20 euro | 19,65 euro | 9,80 euro |
| 3. kategoriako ibilgailuak (3.500 kg-tik gorako BGMa duten salgaien ibilgailuak, eta pertsonak garraiatzeko diren ibilgailuak, bederatzi plaza baino gehiagokoak) | 57,90 euro | 28,95 euro | 14,45 euro |
| Atoiak eta erdiatoiak | 33,55 euro | 16,75 euro | 8,35 euro |
| Traktoreak eta nekazaritzako makinak | 33,55 euro | 16,75 euro | 8,35 euro |
| Proiektua ikuskatzea | 16,05 euro | 16,05 euro | 16,05 euro |

*ANEXO II*

*TARIFAS POR REFORMAS*

*A todas las tarifas previstas en este anexo para la inspección técnica por reforma de importancia, se le aplicará una tarifa por tramitación de la reforma.*

*Cuando la reforma suponga una variación de masa del vehículo, o de su reparto en ejes, además de la tarifa que corresponda por inspección técnica se aplicara la tarifa de pesaje.*

*A las reformas que exijan para su tramitación la presentación de un proyecto, se les agregará la tarifa de revisión de proyecto.*

*Cuando la reforma suponga la verificación metrológica del aparato taxímetro, se agregará la tarifa correspondiente a dicha verificación.*

| Tipo de vehículo | Tarifa (incluido IVA) | | |
|---|---|---|---|
| | Tipo 1 | Tipo 2 | Tipo 3 |
| Vehículos de 1.ª categoría (Motocicletas, ciclomotores y vehículos de motor, hasta tres ruedas) | 21,20 euros | 10,60 euros | 5,30 euros |
| Vehículos de 2.ª categoría (Turismos, cuadriciclos y vehículos de mercancías de M.M.A. hasta 3.500 kg) | 39,20 euros | 19,65 euros | 9,80 euros |
| Vehículos de 3.ª categoría (Vehículos de mercancías de M.M.A. mayor de 3.500 kg y de transporte de personas de más de nueve plazas) | 57,90 euros | 28,95 euros | 14,45 euros |
| Remolques y semi-remolques | 33,55 euros | 16,75 euros | 8,35 euros |
| Tractores y maquinaria agrícola | 33,55 euros | 16,75 euros | 8,35 euros |
| Revisión de proyecto | 16,05 euros | 16,05 euros | 16,05 euros |

III. ERANSKINA

BESTE AZTERKETA BATZUEN TARIFAK

| Azterketa mota | Tarifa (BEZa barne) |
|---|---|
| Salgai arriskutsuen edo galkorren garraio-ziurtagiriaren luzapena | 2. mota + Izapideak |
| Izapidea | 11,10 euro |
| Ibilgailuen pisaldia | 14,20 euro |
| 2. faseko jatorrizko egiaztapena, aldizkakoa eta taximetroak konpondu edo taximetroetan aldaketak egin osteko egiaztapena. | 22,75 euro |
| Ibilgailuak matrikulatu aurreko azterketak | 32,15 euro |
| Adin txikikoen eta eskola-garraioaren azterketa bereziak | 23,50 euro |
| Denuntziagatiko edo borondatez eskatzen den zatikako azterketa | 3. mota aztertutako kontzeptu bakoitzeko. 1. motako gehienezko tarifa |

OHARRAK:

1.– Matrikulatu aurreko azterketagatiko tarifari, aldizkako azterketagatiko tarifa gehituko zaio, ibilgailuaren kategoriaren arabera, eta, kasuan kasu, garrantzizko erreformak erregularizatzearen eta pisatzearen izapideena ere bai.
2.– Eskola-garraioaren azterketa berezia ibilgailu astunei aplikatuko zaie, eta aldizkako azterketako tarifari gehituko zaio.
3.– Eskola-garraioko altako erreformetan eskola-garraioaren tarifa bera aplikatuko da, erreformakoari gehituko zaizkiolarik.
4.– Ibilgailu arinei, gehienetan taxiei, ez zaie aplikatuko eskola-garraioaren tarifa kasu hauetan: taxi bidezko eskola-garraioaren azterketa bereziak badira eta horiek ibilgailuren aldizkoarekin batera egiten badira; eskola-garraioari dagokiona bakarrik egiten bada aplikatu egin beharko da.

*ANEXO III*

*TARIFAS POR OTRAS INSPECCIONES*

| *Tipo de inspección* | *Tarifa (incluido IVA)* |
|---|---|
| *Prórroga de certificado de transporte de mercancías peligrosas o perecederas* | *Tipo 2 + Tramitación* |
| *Tramitación* | *11,10 euros* |
| *Pesada de vehículos* | *14,20 euros* |
| *Verificación primitiva 2.ª fase, periódica, y después de reparación o modificación de aparatos taxímetros* | *22,75 euros* |
| *Inspecciones previas a la matriculación de vehículos* | *32,15 euros* |
| *Inspecciones específicas de transporte escolar y de menores* | *23,50 euros* |
| *Inspección parcial por denuncia o a petición voluntaria* | *Tipo 3 por cada concepto inspeccionado. Con un máximo de tarifa Tipo 1* |

NOTAS:

*1.– A la tarifa indicada para la inspección previa a la matriculación, se agregará la tarifa de inspección periódica que corresponda según la categoría del vehículo y, cuando proceda, las de tramitación de regularización de reformas de importancia y pesaje del vehículo.*
*2.– La inspección específica de transporte escolar se aplicará a los vehículos pesados, incrementándose a la tarifa de inspección periódica.*
*3.– La misma tarifa de transporte escolar se aplicará en las reformas de alta de transporte escolar, incrementándose a la de reforma.*
*4.– A los vehículos ligeros, generalmente taxis, no se aplicará la tarifa de transporte escolar cuando se trate de inspecciones específicas de transporte escolar de taxis y si se efectúan simultáneamente con la periódica del vehículo; sí se aplicará en caso de que se realice únicamente la específica de transporte escolar.*